

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA

261

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 29koa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariarena, karrerako funtzionarioei gordetako lanpostu bat betetzeko 2025eko ekainaren 19ko Ebazpenaren bidez deitutako lehiaketa ebazten duena.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu bat (administrarien eskala, C1 azpitaldea, 22. lanpostu mailako osagarria) betetzeko deialdia eta oinarriak onartzen dituen 2025eko ekainaren 19ko Ebazpenaren bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, balorazio-batzordeak du erreklamazioak eta atzera-egiteak ebazteko eta esleipen-proposamena Agintaritzaren lehendakariari bidaltzeko ardura, onar dezan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea agindu dezan.

Erreklamazioak eta atzera-egiteak aurkezteko epea amaitutakoan, ez da halakorik aurkeztu. Horrenbestez, balorazio-batzordeak, abenduaren 26an, behin-behineko proposamena behin beti-otzat jo du eta lehendakariari helarazi dio.

Ondorioz, eta lehiaketako balorazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Esleipenaren behin betiko proposamena onartzea eta esleipena argitaratzea (eranskina).

Bigarrena.– Data ezartzea, lanpostua esleitu zaion izangaia lanpostuaz jabetzeko: 2026ko otsailaren 2a.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 29a.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakaria,
UNAI ABERASTURI GORRIÑO.

2026ko urtarrilaren 21a, asteazkena

ERANSKINA

ESLEITUTAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO LANPOSTU BATZUK BETETZEKO
LEHIAKETA, 2025EKO EKAINAREN 19KO EBAZPENAREN BIDEZ DEITUA

Kodea: 004/002 Izena: Administrazioaren eta Giza Baliabideen kudeatzailea Lanpostu-mailako osagarriaren maila: 22 HE: 3.a Derrigortasun-data: derrigortasun-datarik gabe	
Esleipenduna:	NAN
Vea-Murguia Basterra, Maria Lourdes	***9266**